

HEZKUNTZA ELEANITZA BIDEAN: EUSKAL HEZKUNTZA, NAZIOARTEKO IKUSPEGITIK BEGIDATUZ

Maria-Jose Azurmendi

UPV/EHUko Gizarte Psikologiako katedraduna
Helbide elektronikoa: ehu-azurmendi@telefonica.net

Artikulu honen helburua argitaratu berri den liburu interesgarri batean ageri diren ideia nagusiak jasotzea da, gaur egungo euskal hezkuntzan interesgarriak eta aplikagarriak direla pentsatuz, eta, horrela, euskal gizartean dugun hezkuntzaren inguruko eztabaidan modu positiboan eragitea.

Landuko dudan liburua Jasone Cenoz irakasleak argitaratu duen *Towards Multilingual Education. Basque Education Research from an International Perspective* (2009)¹ da. Liburuaren edukia eta helburua ondo laburtzen ditu tituluak, eta, artikuluan ere, antzeko izenburua erabiltzea egokia iruditzen zait. Autoreak hezkuntza eleanitzean, bere eta beste zenbait adituren esperientzia handia jaso, aztergai honekiko halako *'the state of the art'* gisakoa eskaintzen du liburuan. Esperientzia horrek biltzen ditu argitaratu dituen zenbait lan, batzuetan berak bakarrik eginikoak —liburu edo artikulua—, eta, besteetan, beste batzuekin batera —editore eta ko-editore moduan— emanikoak ere. Lan horietako asko liburu honetan bertan aipatu dira, gure zorionerako, ingelesez eta espainieraz argitutakoak, eta, baita, euskaraz emaniko pare bat ere². Artikulu horiek liburu honen aurrekarizat ere har daitezke, eta horietako bat *BAT* aldizkari honetan argitaratu da.

Liburua oso aberatsa da zentzu guztietan. Horregatik, nekeza da neurri eta modu egokian artikulua batean laburtzea. Bertan dauden ideien artean batzuk aukeratu eta azpimarratuko ditut, alde batetik, tituluek adierazten dutenari jarraiki -kapituluetan esaten direnak kontuan hartuz-, eta bestalde, garrantzi berezia emanez liburuaren hasieran eta bukeran ditugun *sarrera*, *ondorioak* eta *etorkizunerako gogoetak* eta *hitzaurrea* atalei, ordena hori erabiliz. Atal horietan aurkezten dira liburuaren helburuak, aztertuko diren gai nagusiak, erabiliko diren teoria eta metodologiak, maneatuko diren ideia aberatsenak, berrikuntzak non dauden, eta abar. Horrela, artikuluen helburuak honakoak izango dira: lehenik, liburuak duen interesa handia adieraztea modu aberats eta interesgarrian, eta, bigarrenik, liburuak dituen eduki zabalak, ikuspegi berriak eta zorroztasunak bere osotasunean eta zuzenean jaso ditzan irakurleak, liburu bera irakurtzera bultzatzea; antzean esan daiteke erabiltzen duen bibliografia zabalari buruz ere, artikuluan aipatuko ez ditugunak.

SARRERAn aipatzen den lehen ideia, ardatza dena, honakoa da: euskal hezkuntza elebidunaren eta eleaniztunaren emaitzen inguruko eztabaida, testuinguruko emaitzekin erkatuz egin behar da. Izan ere, Euskal Herriko hezkuntzaren egoera interesgarria da nazioarte-mailan ere, gehienbat, euskal kasua nahiko atipikoa delako munduko beste gutxiengoaren hizkuntzetan gertatzen denarekin erkatuz. Atipikotasun horren nondik norakoak honela azaltzen ditu egileak:

1) Euskarak, gutxiengoaren estatusa izan arren, irakaskuntza-hizkuntza izatea lortu du, bai lehen hizkuntza bezala (1H), eta baita bigarren hizkuntza (2H) bezala ere. Gainera, euskara espainiera eta atzerriko beste hizkuntza bat batera erabiltzen direnez, euskal hezkuntzan zenbait prozesu interesgarri gauzatzen dira. Kontuan izan behar da hiru hizkuntza horiek *bertako eta ondare den hizkuntza*, *bigarren hizkuntza* (2H) eta *atzerriko hizkuntza* direla.

2) Euskararen zabalkundea irakaskuntza-hizkuntza bezala, eta egoera eleanitza eta kulturانيتza modu berezian garatu dira Euskal Herrian. Ez dira erabat hedatu hiru hizkuntza horiek irakaskuntzan, nekeza baita hezkuntzan errealitate soziolinguistikoa muga zehatzetan sartzea; neurri batean behintzat, bertako ondarea, bigarren hizkuntza eta atzerrikoa elkarri gainjartzen edo gainjartzen zaizkio.

3) Euskal hezkuntza-sistemak informazio interesgarria eskaintzen du, ez bakarrik euskara irakaskuntza-hizkuntza gaiaren inguruan, baizik eta hezkuntza elebiduna eta eleaniztunaren bestelako zenbait alderdiren inguruan ere, izan ere, euskararen kasuak hezkuntza elebidunetan gerta ohi den dikotomia desegiten du, elitekoa edo folklorikoa izatearena, alegia, eta, baita, hezkuntza elebidunean erabili diren baliabide ekonomikoak nahiko handiak direlako, eta gutxiengoaren hizkuntzaren hiztunak ez daudelako ekonomikoki okerrago

Euskal hezkuntza elebidunaren eta eleaniztunaren emaitzen inguruko eztabaida, testuinguruko emaitzekin erkatuz egin behar da.

Euskarak, gutxiengoaren estatusa izan arren, irakaskuntza-hizkuntza izatea lortu du, bai lehen hizkuntza bezala (1H), eta baita bigarren hizkuntza (2H) bezala ere.

*Euskararen kasuak
hezkuntza elebidunetan
gerta ohi den dikotomia
desegiten du, elitekoa edo
folklorikoa izatearena.*

*Euskal kasua
munduko beste
egoeretarako interesgarri
eta eredugarri da zenbait
arlotan, esate baterako,
hezkuntza elebiduna eta
eleaniztunaren inguruko
gaietan,
hizkuntzen jabekuntzan,
hizkuntza-politika
gutxiengoen hizkuntzatan
aplikatzeari dagokionean.*

gehiengoaren hizkuntzaren hiztunak baino, beste zenbait gutxiengoaren kasutan ohikoa denetik aldentuz.

4) Euskal hezkuntza elebiduna eta eleaniztunaren euskarazko hezkuntza haur-eskolatik unibertsitatetara hedatzen da, eta ingelesaren presentzia ere handitzen doa. Horrek guztiak hizkuntza-plangintzan eragina du, adibidez, euskararen, espainieraren eta ingelesaren irakaskuntza egiterakoan, aldi berean bertako gutxiengoaren hizkuntzaren garapena lortzeko, eta gero eta gehiago behar den ingelese ere erabiliz.

5) Horrela, euskal kasua munduko beste egoeretarako interesgarri eta eredugarri da zenbait arlotan, esate baterako, hezkuntza elebiduna eta eleaniztunaren inguruko gaietan, hizkuntzen jabekuntzan, hizkuntza-politika gutxiengoen hizkuntzatan aplikatzeari dagokionean, eta abar.

Hezkuntza eleanitzean orokorrean, eta, bereziki, euskal hezkuntza eleanitzean bereizten diren gai nagusiak liburu honetako kapituluetan islatzen dira. Hainbat ideia aipatuko ditugu, kapitulu bakoitzeko ondorioetatik aukeratuz gehienbat. Beraz, ideia gutxi batzuk soilik izango dira, horrela, artikulua irakurleak liburu osoa irakurtzera bultzatzeko helburuarekin.

1. KAPITULUA: ZERGATIK ELEANIZTASUNA?

Euskal Autonomi Erkidegoa (EAE) izan da lan honen erdigunea. Bertako hezkuntza-sisteman txertatu dira *euskara* gutxiengoaren hizkuntza, *espainiera* gehiengoaren hizkuntza eta *ingelese* nazioarteko hizkuntza. Horrenbestez, eleaniztasuna, neurri batean behintzat, gauzatzen da. Kapitulu eleaniztasunaren inguruko honako ideia orokorrak biltzen dira:

- 1) Eleaniztasunaren definizioa, eta horrekin lotzen diren beste zenbait kontzepturen nondik norakoak eta terminologiaren inguruko argibideak eskaintzen dira, liburuaren ulergarritasuna bermatze aldera;
- 2) Munduko 7.000 hizkuntza inguru 200 estatu independenteen artean banatuta egoteak munduan zehar egoera zabalduena eleaniztasuna izatea arrazoitzen du;
- 3) Ekologiaren ikuspegia erabiliz hizkuntza-aniztasuna eta bizitza-aniztasuna modu antzerakoan uler daitezke, hizkuntza guztiekiko "garapen jasagarria" aldarrikatuz eta errebindikatu;
- 4) Norbanako eta gizarte-mailan aplikagarri den kontzeptua da eleaniztasunarena;
- 5) Fenomeno konplexua den neurrian, ikuspegi anitzak erabili behar ditu: linguistikoa, psikolinguistikoa, antropologiakoa edo soziolinguistikoa;

- 6) Hezkuntza-eremua ardatz-gunea du;
- 7) Egungo mugikortasun soziala (immigrazioa, errefuxiatuak, langileak, ikasleak, soldaduak, eta abar) etengabe handitzen ari da, baita Europar Batasunean ere, eta, horrela, aniztasun-mota guztiak (hizkuntzekikoa barne) zabaltzen ari dira;
- 8) Ingelesa da gaur egun nazioarteko hizkuntza nagusia, eta hori baliagarria izan daiteke bai *estatu bat/hizkuntza bat* ereduak aldatzen laguntzeko, eta baita *'lingua franca'* moduan erabiliz, gutxiengoaren hizkuntzak ez oztopatzeko ere.

Eleaniztasunaren garrantzia adierazteko beste arrazoi batzuk ere ematen dira. Hona hemen horietako batzuk:

- 1) Gutxiengoaren hizkuntzei dagozkien artean normalizazioaren beharrarekin lotura dutenak daude. Prozesu horretan hezkuntza-eleaniztasunaren garrantzia azpimarratzen da, eta bertan aplikatu behar den hizkuntza-plangintzaren zereginak (corpusa, estatusa eta jabe-kuntza);
- 2) Hezkuntzaren rolaekin lotzen diren arrazoiak: gutxiengoaren hizkuntzen normalizazio-prozesuan, hezkuntzan eta hezkuntzatik kanpo egin beharrekoak kontuan hartuz, eta horrekin batera ingelesaren ikaskuntza nola bideratu, zenbait testuingururen esperientziak aipatuz eta baita Euskal Herriarena ere;
- 3) Euskal Herriaren egoera nolakoa den, batez ere, EAEn bilakaera nolakoa izan den aurkezten da, gehienbat euskararekiko eta ingelesarekiko, zenbait bide erabiliz. Euskararekiko, adibidez: J. Fishman adituaren *'Reversing language shift'* ereduak erabili du. Euskararen kasua gure artean nahiko ezaguna bada ere, irakurtzeko oso interesgarria da.

2. KAPITULUA: HEZKUNTZA ELEANITZAREKIKO TIPOLOGIA

Hezkuntza eleanitzarekiko tipologia egokia eraikitzeko dimentsio linguistikoak, hezkuntzazkoak eta soziolinguistikoak erabiltzen dira. Horretarako, *'The Continuum of Multilingual Education'* ereduak proposatzen da (Baetens 1993), ohiko dikotomiak gainditu nahian. Hezkuntzarekiko *"continua"* hori alde batetik honako lau aldagai hauetan aplikatzen da: norbanakoa —edo subjektua—, ikasketa-hizkuntza, irakaslea eta eskola testuingurua, eta, bestetik, eleaniztasun gutxiagotik edo gehiagora doan tartean (*'less multilingual'* to *'more multilingual'*) kokatuz. Adibide bezala, *"eskola testuingurua"* aldagaia nola erabiltzen den ondoren erakutsiko dugu, labur-labur (liburuan: 2.5. Taula, 34 or.).

Ekologiaren ikuspegia erabiliz hizkuntza-aniztasuna eta bizitza-aniztasuna modu antzerakoan uler daitezke, hizkuntza guztiekiko "garapen jasangarria" aldarrikatuz eta errebindikatuz.

Ingelesa da gaur egun nazioarteko hizkuntza nagusia, eta hori baliagarria izan daiteke bai estatu bat/hizkuntza bat ereduak aldatzen laguntzeko, eta baita 'lingua franca' moduan erabiliz, gutxiengoaren hizkuntzak ez oztopatzeko ere.

Hezkuntza eleanitzarekiko tipologia egokia eraikitzeke dimentsio linguistikoak, hezkuntzazkoak eta soziolinguistikoak erabiltzen dira. Horretarako, 'The Continuum of Multilingual Education' eredia proposatzen da (Baetens 1993), ohiko dikotomiak gainditu nahian.

SUBJEKTUA
IRAKASKUNTZA-HIZKUNTZA
IRAKASLEAK
ESKOLAREN TESTUINGURA
Eleaniztutasun gutxiago < -----> Eleaniztutasun gehiago

Hori guztia zenbait testuinguru ezberdinetan aztertu ondoren, euskal hezkuntza testuingurua erakusten da. Kasu hori guretzat oso interesgarria da J. Cenozek zenbait berrikuntza proposatzen dituelako. Adibidez, hizkuntza-ereduen inguruan ohiko eredu ofizialak —A, B, D ereduak— bereizteaz gain, garatzen ari diren beste eredu inguruko informazioa ere eskaintzen du. Eredu berri horiek *continuum* batean kokatzen dira aurrekoen artean. Horrela, hiru eredu ordez, beste sei eredu ere bereizten dira (liburuan, 2.13. Taula, 52 or.).

Horrela, hezkuntza elebidunetik eleaniztunera igarotzean, egoera konplexua eta erakargarria bihurtzen da, hezkuntza-eleaniztuna horrela definituz: 'teaching more than two languages provided that schools aim at multilingualism and multiliteracy'.

3. KAPITULUA: GUTXIENGOAREN HIZKUNTZA ERABILTZEA IRAKASKUNTZA-HIZKUNTZA BEZALA

Europako Kontseiluak (1992) honela definitzen ditu gutxiengoaren hizkuntzak *The Charter for Regional and Minority Languages* dokumentuan: 'Languages that are traditionally used within a given territory of a state by nationals of that state who form a group numerically smaller than the rest of the state's population and [are] different from the official language(s) of that state'. Definizio hori nahiko eztabaidagarri izan arren, hori da gaur egun erabiltzen dena Europar Batasunean, baita euskararen kasurako ere. Horrela, euskararekiko hiru talde bereizten dira: Espainian EAE eta Nafarroa, eta Frantzia euskal eskualdea, bestelako tratamendurik kontsideratu gabe.

Hirugarren kapitulu honetan euskal hezkuntza-sisteman gauzatu den gutxiengoaren hizkuntzaren bitarteko irakaskuntza aztertzen da, gehienbat, EAEn gertatzen diren fenomenoak kontuan hartuta. Honako gaiak bereizi dira:

1) Alde batetik, leku berezia ematen zaio ikastolen esperientziari, zenbait berrikuntza sortu dituztela aitortuz. Bestalde, hizkuntza-eredu bakoitzak (A, B, eta D) nolako egoera duten EAEn, eta nolako emaitzak lortu dituzten erakusten da, eta, aipatzen, bereziki, D eredu lortutako emaitza onak, bai euskarari dagokionean, eta baita ingelesaren jabekuntzari dagokionean ere.

2) Zer-nolako erronkak dauden gutxiengoaren hizkuntza modu positiboan erabiltzeko irakaskuntza-hizkuntza bezala aztertzen da, arre-

ta berezia jarriz irakasleen prestakuntzari eta irakaskuntzarako materialak prestatzeari.

3) Euskararen erabilera nola bultzatu daitekeen eskola barruan eta eskolatik kanpo ere planteatzen da, orain arteko ikerketen emaitzen arabera zer dakigun zehaztuz, eta, baita, oraindik ikertu beharrean daudenak ere azaleratzen, esate baterako, komunikazio-modu berriak (texting, chatting, emailing, ...) aztergai bezala kontsideratuz.

4) Immigrazioa dela-eta, etorkinen integrazioa nola egin daitekeen aztertzen da, bai hezkuntzan, eta baita euskal gizartean ere, ghattizazioa saihestu nahian, baita euskararen aldeko jarrerak eta aukerak bultzatzeko ere. Immigrazioko hizkuntzak kontuan hartzeko irizpideak ikusteko, jadanik zenbait egitasmo abian jarri direla erakusten da honako hizkuntzak erabiliz: euskara, espainiera, ingelesa, frantsesa, portugesa, errusiera, errumanieran, arabieran eta txinera. Ondorio gisa baieztatzen da euskal hezkuntzak asko lortu arren, oraindik ere, helburu berriak lortzeko etengabe eta modu dinamikoan ekin behar duela, gizartea ere, modu dinamikoan aldatzen doan neurrian.

J. Cenzoek zenbait berrikuntza proposatzen dituelako. Hizkuntza-ereduen inguruan ohiko eredu ofizialak –A, B, D ereduak– bereizteaz gain, garatzen ari diren beste eredu inguruko informazioa ere eskaintzen du. Eredu berri horiek continuum batean kokatzen dira aurrekoen artean.

4. KAPITULUA: IRAKASKUNTZA GUTXIENGOAREN HIZKUNTZAN: EMAITZA LINGUISTIKOAK ETA AKADEMIKOAK

Laugarren kapituluan honako galderari erantzuten saiatzen da egilea: Ikasleak erakartzeko, zenbaterainoko arrakasta izan du euskara-bitarteko hezkuntzak? Zenbateraino dira onak lortu diren emaitzak? Zer-nolako eragina izan du euskara-bitarteko irakaskuntzak euskararen erabileran eta bere bizitasunean? Galdera horien erantzunak positiboak izan dira.

Bigarren galderari erantzuteko PISA ebaluazioaren datuak erabili dira, EAEn 2006. urtean lortutako datuak, alegia, bereziki matematikari, irakurketa-gaitasunari eta zientziari dagozkienak kontuan hartuta. Ebaluazio-modu hori nazioartean homologatutako sistema da. Kasu horretan, 57 estatutan egindako ebaluazioak erkatuz, EAeko emaitzak nahiko onak izan zirela esan daiteke, aztertutako hiru arlotan. Espainiako emaitzak baino hobek izan zirela ikusiz, eta OECDek lortutakoen arteko batez bestekoarekin erkatuz antzekoak izan zirela ikusiz, modu positiboan baloratu dira emaitza horiek. Antzera gertatu zen 2007an nazioarteko TIMSS ebaluazioan, matematika- eta zientzia-arloak aztertuz, bietan EAEn emaitzak TIMSS-eko batez bestekoak bezalakoak izan zirelako.

Bestelako ebaluazioak ere egin izan dira bertakoen ikerketen bitartez, emaitza akademikoak eta linguistikoak nolakoak diren ezagutzeko. Oso interesgarriak dira kapituluan eskaintzen diren datuak: hizkuntza-ereduak, hezkuntza-mailak, eskola publikoak eta pribatuak, eta abar. Orokorrean honako ideiak azpimarra daitezke Euskal Autonomi Erkidegoan:

Nolako emaitzak lortu dituzten erakusten da, eta, aipatzen, bereziki, D ereduan lortutako emaitza onak, bai euskarari dagokionean, eta baita ingelesaren jabekuntzari dagokionean ere.

Immigrazioa dela-eta, etorkinen integrazioa nola egin daitekeen aztertzen da, bai hezkuntzan, eta baita euskal gizartean ere, ghattizazioa saihestu nahian.

1) Euskarazko irakaskuntzan lortutako emaitzak zenbait hezkuntza elebakarretan lortu direnaren antzekoak edo hobeak izan dira. Horrek adierazten du hezkuntza elebiduna bateragarri dela garapen akademiko arrakastatsuekin.

2) Euskara ikasgai modura ikasten bada soilik, lortzen den euskararen gaitasun-maila oso baxua da.

3) Euskaraz ikasten dutenek, espainieraz ere gaitasun handia lortzen dute. Batzuetan espainiera bere hizkuntza nagusia izaten jarraitzen du, batez ere, jatorriz erdaldunak direnen kasuetan.

4) Euskarazko eta espainierazko gaitasun-mailak lortzeko hezkuntzaz kanpoko beste faktore batzuk ere eragina dute.

5) Euskaraz ikasten dutenek emaitza akademiko onak lortzen dituzte; espainieraz ikasten dutenen antzekoak.

5. ETA 6. KAPITULUAK: 3H IKASKUNTZA ETA 3H BITARTEZKO IKASKUNTZA

Hirugarren hizkuntza (3H) aipatzen denean hemen, gehienbat, ingelesari egingo dio erreferentzia, nazioarteko hizkuntza nagusia delako, baita Euskal Herrian ere. Europar Batasunean, ingelesa da bigarren hizkuntza (2H) edo 3H nagusiena (%77). Euskal Herrian ingelesa da atzerriko hizkuntza nagusia (%95), baina tradizionalki ez dira emaitza onegiak izan, haren gaitasun-maila nahiko kaskarra izan delako. Horregatik, azken urteetan saio berriak jarri dira abian emaitzak hobetzeko helburuarekin. Horien artean kokatzen da hezkuntza-elebidunetik hezkuntza eleaniztunera pasatzea, lau urteko haurren heziketan ingelesa pixkanaka sartzea, ikasgaiaren bat edo gehiago ingelesez irakatsi eta ikastea, euskara, espainiera eta ingelesa erabiliz ikasgaiak irakatsi eta ikastea, hezkuntza eleanitza sustatzea -baita frantsesa erabiliz ere-, eta abar. Esperientzia horiek guztiak lehenago jarri dira abian hezkuntza pribatuan publikoan baino, nahiz eta azken urteetan hezkuntza publikoan ere sartzten ari diren. Bi kapituluak datuz beteta daude, zenbait taula eta irudi erabiliz. Dena den, kapituluaren amaieran esaten den bezala, nahiz eta asko ikertu den, oraindik ere, asko ikertu behar da: "more studies to assess the different projects in multilingual education in the BAC are needed and they have to take into account not only the specific characteristics of the school (number of hours of English, integration of subjects) but also the sociolinguistic context in which learning takes place including exposure to English outside the school".

7. KAPITULUA: ELEBITASUNAREN ERAGINA 3HN


Elebakarrentzat bigarren hizkuntza ikastea (2H) eta hirugarrena elebidunarentzat (3H) ezberdina da. Baita euskara/espainiera dakitenentzat ingelesa ikastea ere. Jadanik, 1960 hamarkadaz geroztik egin diren ikerke-

tetan desberdintasunak ikusi dira hizkuntza horien jabekuntzarekiko, eta baita emaitza akademikoei dagokienean ere; laborategian neurtutakoetan eta baita testuinguru berezietan hartutakoetan ere; murgiltze-programetan eta bestelako programetan izandakoetan. Gai horren inguruko ikerketak egin izan dira Kanadan, Katalunian -elebidun katalana/espainiera-, Holandan -etorkin italiarrak, italiara/frantsesa dakiten haurrak, nederlanderaz irakaskuntza egiterakoan-, Estatu Batuetan -frantsesa ikasterakoan, ingeles elebakarrak eta ingeles/espainiera elebidunen artean-, eta abar.

Antzera ikusten da euskara/espainiera elebidunengan, ingelesa 3H bezala ikasterakoan. Euskal hezkuntzan, hainbat ikerketa egin da alderdi desberdinak bereiziz: hezkuntza-mailak eta hizkuntza-ereduak kontuan hartuta, elebakarrak edo elebidunak izan, elebidun orekatuak edo ez-orekatuak izan, gaitasun-motak, eta abar. Halaber, aztertu da nolako eragina duen 3. hizkuntzak (3H) lehen (1H) eta bigarren hizkuntzan (2H), ingelesak euskararen eta espainieraren duen eragina, adina kontuan hartuta. Horrela bada, elebiduntasunak zenbait abantaila ditu hirugarren hizkuntza ikasterakoan. Euskararen kasuan ere, 3H bera ikasteko elebitasunak abantailak ditu, baita bestelakoak ere, adibidez, kontzientzia metalinguistikoa eta trebetasun kognitiboa garatzeko orduan.

8. KAPITULUA: IDENTITATEAK ETA JARRERAK

Hezkuntza elebidunak hizkuntza ezberdinen erabilera dakar eta, horrekin batera, gutxiengoaren hizkuntzaren legitimitatea gizartean. Horrek inplikazio sozio-politikoak ere baditu gizartean, kontuan izan behar baita modu bertsuan garatzen direla hizkuntzarekiko identitate eta jarrerak eta hizkuntza-taldeekikoak. Horrela, hezkuntza elebidunetan eta eleaniztunetan dimentsio sozio-politikoa kontuan hartu behar da, bertan garatzen diren identitateak, jarrerak eta joerak ulertzeko. Horrek garrantzi berezia du euskararen kasuan, ikerketa askok —ofizialek eta ez-ofizialek— adierazten duten bezala. Egoera laburtzeko, ondoko taulan hainbat aukera erakusten dira euskararen kasurako, bakoitzak bere diskurtsoa duelarik (liburuan, 8.1. Taula, 172 or.).



Identitateari buruz berrikuntzak proposatzen dira. Identitatea kategoria finko bat oinarri hartuta eraikitzen zerbait aldakorra eta anitza kontsideratzera igaroz *'multiple, complex, context contingent, varied, overlapping, sometimes fragmented and even contradictory along different contexts'*

Euskarazko irakaskuntzan lortutako emaitzak zenbait hezkuntza elebakarretan lortu direnaren antzekoak edo hobekak izan dira. Horrek adierazten du hezkuntza elebiduna bateragarri dela garapen akademiko arrakastatsuekin.

Euskara ikasgai modura ikasten bada soilik, lortzen den euskararen gaitasun-maila oso baxua da.

Euskarazko eta espainierazko gaitasun-mailak lortzeko hezkuntzaz kanpoko beste faktore batzuk ere eragina dute.

Euskal Herrian ingelesa da atzerriko hizkuntza nagusia (%95), baina tradizionalki ez dira emaitza onegiak izan, haren gaitasun-maila nahiko kaskarra izan delako. Horregatik, azken urteetan saio berriak jarri dira abian emaitzak hobetzeko helburuarekin.

Baker-ek (2006) dion bezala. Esan daiteke, horrela ulertzeak postmodernismoari erantzuten diola. Horri buruz egindako ikerketetan zenbait identitate-mota aurkitu dira, eta mota bakoitzak euskararekiko edo euskara/espainierarekiko lotura modu nahiko sendoan azaltzen duela. Baina horretan ere, badirudi euskal egoera aldatzen ari dela, adibidez, gazteen artean. Izan ere, horien artean euskalduna izateko baldintza garrantzitsuena “Euskal Herrian bizitzea eta lan egitea” da (%69), eta “euskaraz hitz egitea”-ri oso garrantzi txikia ematen zaio (%18).

Jarrerari buruz ere antzeko emaitzak lortu dira. Jarrerak zerbaitekiko —pertsona, objektu, instituzio, gertaera— aldeko edo kontrako joera bezala ulertzen dira, alde kognitiboa, afektiboa eta intentsiozkoa bereiziz. Jarrerak hezkuntza elebidunean eta eleaniztunean eragina izan dezakete, hizkuntza bakoitzari dagokionean, hau da, gutxiengoarena den euskararekiko, gehiengoarena den espainierarekiko eta ingelesarekiko, eta abar. Oraingo honetan ere, hainbat ikerketaren emaitzak eskaintzen dira euskal kasua ulertzeko. Nolanahi ere, kapitulua amaitzeko azpimarratuta geratu da horrelako ikerketek gehiago izan direla egoeraren deskribatzaile esplikatzailerako baino, eta sakonago ikertu beharra dagoela.

9. KAPITULUA: ADINA FAKTOREA HEZKUNTZA ELEBIDUNEAN ETA ELEANIZTUNEAN

Kapitulu honetan, bereziki, 2H edo 3H ikasterakoan lortzen diren gaitasun-mailak azaltzeko “epe kritikoaren hipotesia” eztabaidatzen da. Datuak hezkuntzaren testuinguru formalean biltzen dira, testuinguru formalak eta informalak —edo naturalak— bereiziz, gehienbat euskal eskolak kontuan hartuta. Hipotesi horren arabera, zenbat eta lehenago hasi hizkuntza bat ikasten —ahalik eta modu informalean—, orduan eta emaitza hobekiago lortuko dira, hau da, gaitasun-maila handiagoa lortuko da. Hipotesi horri jarraiki, nahiko hedatuta dago euskal kasuan haurrek ingelesa ikasten hastea 4 urterekin, oso intentsitate txikiarekin bada ere. Badirudi, ordea, ez dela erabat ziurra gauzak horrela direnik. Gai horren inguruan zenbait ikerketa egin dira honako faktoreak kontuan hartuz: adina, generoa, irakaskuntzaren intentsitatea, hezkuntza-maila, garapen kognitiboa, irakaskuntza-metodologia, euskararen eta espainieraren gaitasun-mailak eta erabilerak, eta abar. Era berean, zenbait alderdi linguistiko bereizi ere kontuan hartu izan da: ahozkoa ulertzea, hitz egitea, idatzizkoa ulertzea, idaztea, gramatika, eta abar. Gure kasuan, emaitza kontraesankorrak lortu dira. Gainera jarreraren inguruan badirudi, adin txikiagoetan jarrerak eragin txikiagoa dutela 2H eta 3Hen ikaskuntzan, eta positiboagoak direla oro har; nolahi ere, horrek ez du ziurtatzen jarra hobeago horiek horrela mantenduko direnik gerora. Esan bezala, hezkuntzan ingelesa oso goiz sartzeak euskararen eta espainieraren zer nolako eragina duen aztertzen da. Lortu diren emaitzen artean aipa daiteke era-

gin negatiborik ez izatea, nahiz eta gai horren inguruan ere erabateko adostasunik egon ez.

10. KAPITULUAN: HEZKUNTZA ELEBIDUNA ETA ELEANIZTUNA UNIBERTSITATEAN

Unibertsitateko irakaskuntzan ingelesa sartzek gaur egungo beharrei erantzuten die honako arrazoiak tarteko: 1) ingelesa zientzian eta teknologian hizkuntza nagusia denez, beharrezkoa da ezagutza lortzeko -argitalpenak irakurriz, adibidez-, baita ezagutzak partekatzeko ere -kongresuetan erabiliz, adibidez-; 2) ikasleen mugikortasuna handitzen ari da etengabe, eta, Europako unibertsitate nordikoetan adibidez, jadanik, 52 programa eskaintzen dira ingelesez; 3) lanerako ere ingelesaren beharra handitzen ari da; 4) Europako testuinguruan, Bologna Deklarazioaren arabera, Europako goi mailako hezkuntza ingelesa *'lingua franca'* modura gero eta gehiago erabiltzearekin lotzen da.

Euskal kasuan, saiakera ezberdinak egin dira unibertsitateetan, lehenik, euskaraz irakatsi-ikasteko bidea irekiz, espainierazko bidea mantenduz. Ingelesez bidea orain ari da zabaltzen. Euskal Herriko Unibertsitatean garatu da gehien euskaraz irakatsi-ikasteko bidea, bertako hizkuntza ofizialak euskara eta espainiera direla onartuz, eta horregatik aztertzen da gehien liburuan. Nahiz eta oraindik euskarazko lerroa erabat osatuta egon ez arren, eta titulazio guztiek abiadura berdina jarraitu ez, geroz eta egoera orekatuagoan dago; bertako euskalduntze-prozesua zabaltzen ari da baita irakasleen artean, administrazioan, eta abar. Ingelesa eta beste hizkuntza batzuk —neurri txikiagoan— sartzten hasi dira irakaskuntza-ikaskuntzan 2005-06 ikasturtetik aurrera; horren adierazle da “Euskararen Errektoreordetza” izatetik “Euskararen eta Eleaniztasunaren Errektoreordetza” izatera pasatzea. Deustuko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko egoerak ere adierazgarri dira, bertan espainieraren presentziaren ondoan, euskararena eta ingelesarena garatzen ari baita.

11. KAPITULUAN: ONDORIOAK ETA ETORKIZUNERAKO GOGOETAK

Hamaikagarren kapituluan, honako hiru atal hauek garatu dira: 1) Euskal hezkuntza elebidunak eta eleaniztunak erakusten dutenaren laburpena; 2) Nola ulertu daitekeen eleaniztasuneranzko joera adieraztea; 3) Etorkizunerako gogoetak.

Elebiduntasunak zenbait abantaila ditu hirugarren hizkuntza ikasterakoan. Euskararen kasuan ere, 3H bera ikasteko elebitasunak abantailak ditu, baita bestelakoak ere, adibidez, kontzientzia metalinguistikoa eta trebetasun kognitiboa garatzeko orduan.

**Hezkuntza elbidunetan
eta eleaniztunetan
dimentsio sozio-politikoak
kontuan hartu behar da,
bertan garatzen diren
identitateak, jarrerak eta
joerak ulertzeko.**

**Identitateari buruz
berrikuntzak proposatzen
dira. Identitatea
kategoria finko bat
oinarri hartuta
eraikitzen zerbait
aldakorra eta anitza
kontsideratzera igaroz.**

1. Euskal hezkuntza elebiduna eta eleaniztunak erakusten dutenaren laburpena

Euskal Autonomia Erkidegoan behintzat, euskararen erabileraren bitarteko hezkuntzan emaitza onak lortzen direla ikusita -3H bezala ingelesaren jabeakuntzan ere lortzen direlako-, lehen ondorio modura egileak eredu berri bat proposatzen du: '*Continua of Multilingual Education*' deitzen dio proposamen berriari, edozein hezkuntza elebidunentzat eta eleaniztunentzat baliagarria izan daitekeena. Proposamen horren bitartez zenbait ohiko dikotomia gaindi daiteke, aztergaiak *continuum* modura tratatuz. Ondorio orokor horretara heltzeko, honako ondorio bereziak erabiltzen ditu, euskal hezkuntza kontuan hartuta:

- 1) Euskal hezkuntzak erakutsi du posible dela gutxiengoaren hizkuntza bat irakaskuntza-hizkuntza izatea hezkuntza-maila guztietan, haur-eskoletan hasi eta unibertsitate-raino. EAEn lortzen diren emaitza akademikoak Espainian lortzen direnaren antzekoak edo hobeak dira. Beraz, esan daiteke, gutxiengoaren hizkuntza curriculumean erabiltzeak -gehiengoaren hizkuntza baino gehiago izan arren-, ez duela garapen akademikorik oztopatzen. Horrela konfirmatzen da hezkuntza-elebidunaren emaitza positiboak munduko beste testuingurutan ere erakuts daitezke elebidun-hezkuntza gara dadin bultzatzeko.
- 2) Frogatuta geratzen da euskal ereduak, ingelesa 3H bezala ikastea hedatu daitekeela geroz eta neurri handiagoan, hezkuntza orokorrean eta unibertsitatean, emaitza onak erdietsiz. Horrela, euskara/espainiera elebitasunak positiboki eragiten du ingelesa 3H gisa goiz sartzeko, edukiak eta hizkuntzak modu integratuko irakaskuntza egiteko (CLIL = *Content and language-integrated learning*.) eta ingelesa bera irakaskuntza-hizkuntza bezala geroz eta gehiago erabiltzeko ere. Nolanahi ere, hezkuntza-elebidun gehigarria lortzeko hizkuntza bakoitzarekiko helburuak modu argian finkatu behar dira helburu horiek modu integratuan *curriculumean* erabiltzeko.
- 3) Euskal hezkuntzan lortu dena posible izan da indar asko erabili delako euskara galtze-joeratik garatze-joerara pasatzeko (*Reversing language shift*), hezkuntzaz haratagoko eremuetan ere. Hala ere, badi-rudi euskara 2H bezala dutenen artean euskararen erabilera ez dela handiegia hainbat eremutan: etxean, lagun artean, gertuko komunitatean, eta abar. Horrek eragina du euskararen kalitatean ere. Horregatik, garrantzia du hezkuntza-sistemaren eremuan egiten denarekin batera hezkuntzatik kanpoko esparruetan ere euskara erabiltzeko ekimen ez-akademikoak abian jartzea. Euskararen erabilera handiena ezaugarri batzuen arabera ematen da: euskara 1H bezala transmititzen bada, irakaskuntza-hizkuntza bezala asko erabiltzen bada

-D ereduari, gehienbat-, testuinguru soziolinguistikoa nahiko euskalduna bada, norberaren harreman-sarean dagoen euskaldunen presentzia handia bada, eta abar. Hala ere, zerbait gehiago ere behar da gerora begiraturaz, euskararen erabilera eremu guztietan ziurtatu nahi badugu.

2. Eleaniztasuneranzko joera adieraztea

Euskal Herriko hezkuntza-sistemak erakusten du ez dela komeni hezkuntza elebidunaren eta eleanitzaren artean mugak jartzea. Alderantziz, euskal hezkuntza-sistemak eroso konbinatzen ditu bertako ondare-hezkuntza, 2H eta atzerriko hezkuntza ikastea, hezkuntza elebiduna eta eleaniztuna, eliteko eleaniztasuna eta folklorikoa, hezkuntza eta edukien integrazioa, eta abar. Horrela, 'Continua of Multilingual Education' proposamenak ikuspegi holistikoa erabiltzea dakar, mugarik gabekoa eta dikotomiak gainditzen dituena, eta erakargarria modu malguan erabil daitekeelako munduko beste edozein testuingurutan. Proposamenaren nondik norakoak azaltzen laguntzeko, hezkuntzan ohikoak izan diren zenbait muga azaleratu ditu egileak adibide moduan. Honakoak dira:

- 1) Hizkuntza bakoitzak irakasle bana izatea;
- 2) Hizkuntza bakoitzarentzat eskola-gela ezberdinak erabiltzea, eta eskola-gela bakoitzean hizkuntza bakarrari lotutako paisaia linguistikoa erabiltzea;
- 3) Erabilera-arauak jartzea soilik helburu-hezkuntzarekiko;
- 4) Jatorrizko hizkuntzan elebakarraren eredu aplikatzea elebidunen edo eleaniztunen kasuetan;
- 5) Hizkuntza bakoitzaren plangintzak modu berezian egitea;
- 6) Eleaniztunen gaitasun linguistikoa elebakarrak balira moduan neurtzea, duten errepertorio linguistiko osoa kontuan izan gabe;
- 7) Hizkuntza bakoitza isolatua balego bezala hartzea, eta, horrela, kode linguistikoen arteko aldaketak edo txandakatzak ('code-switching') ez onartzea, ez ahozko erabileran, ez eta ikusizko erabileran ere;
- 8) Hizkuntzen erabilera anitza edo multimodala ez balitz bezala jokatzeko, bertan nahasten diren alderdi ezberdinak —identitateak, jarrerak eta horrelakoak barne— modu berezian tratatu nahian.

Erabili beharreko ikuspegia konplexua eta malgua da. Eleaniztasuna ez da modu sinplean ulertu behar, elebakartasun anitzen batuketan balitz bezala. Eleaniztunaren gaitasuna konplexua da, hizkuntza bakoitzean konplexua delako, kontuan hartzen badira gaitasun-mota desberdinak: linguistikoa, soziolinguistikoa, komunikatiboa, pragmatikoa, psikosoziala, eta abar. Baina horrez gain, eleaniztunaren kompetentzia gaitasun-mota bakoitza hizkuntza bakoitzarekin lotu daiteke modu eta maila ezberdinean. Beraz, esan daiteke "elebidun eta eleaniztun orekatuak"

*Zenbat eta lehenago hasi
hizkuntza bat ikasten
ahalik eta modu
informalenean, orduan
eta emaitza hobek
lortuko dira, hau da,
gaitasun-maila
handiagoa lortuko da.
Hipotesi horri jarraiki,
nahiko hedatuta dago
euskal kasuan hurrek
ingelese ikasten hastea 4
urterekin, oso intentsitate
txikiarekin bada ere.
Badirudi, ordea, ez dela
erabat ziurra gauzak
horrela direnik.*

*Euskal hezkuntzak
erakutsi du posible dela
gutxiengoaren hizkuntza
bat irakaskuntza-
hizkuntza izatea
hezkuntza-maila
guztietan, haur-eskoletan
hasi eta
unibertsitateraino.*

*Frogatuta geratzen da
euskal ereduari, ingelesa
3H bezala ikastea hedatu
daitekeela geroz eta
neurri handiagoan,
hezkuntza orokorrean eta
unibertsitatean, emaitza
onak erdietsiz.*

*Euskal hezkuntzan lortu
dena posible izan da
indar asko erabili delako
euskara galtze-joeratik
garatze-joerara pasatzeko
(Reversing language
shift), hezkuntzaz
haratagoko eremuetan
ere.*

izatea oso zaila dela. Horrenbestez, euskal ikasleek ez lukete espero behar ezagutzen eta erabiltzen dituzten hizkuntza guztietan gaitasun bera lortzea, baizik eta ezagutzen eta erabiltzen dituzten hizkuntza guzti horietan gaitasun-maila handia lortzea.

3. Etorkizunerako gogoetak

Liburuan jasotzen dena oso anitza da zentzu askotan. Eta inplikazio handiak ditu, bai hezkuntza eleaniztunerako, baita gizarte eleanitz osorako ere. Hala ere, lan honek bere mugak ere badituela esaten du egileak berak, eta beste zenbait gai aztertu beharra dagoela aipatzen du, besteak beste honakoak:

- 1) Hezkuntzan, gaitasun eleaniztunarekin batera, identitate anitzak ere ikertu behar dira;
- 2) Azterketa etnografikoak eskola barruan egitea komeni da geletan, alegia. Horrela, hizkuntza bakoitzean gertatzen diren praktikak, prozesuak, negoziak, funtzioak eta bestelakoak aztertuko dira;
- 3) Eleaniztasun egoerak interpretatzerakoan ikuspegi kritikoa erabili behar da. Adibidez, testuinguru historikoa, instituzionala, politikoa harremanetan jartzea oso komenigarria da boterearen araberako harremanak ulertzeko;
- 4) Ikuspegi diziplinartekoagoa erabiliz azterketak bideratzeak garrantzia du. Baita diziplina batzuetan erabiltzen diren hurbilketak eleaniztasunaren gaira aplikatzen saiatzea ere, lortzen diren emaitzak extrapolatuz. Adibide bat izan daiteke ekologiaren ikuspegia erabiltzea, hizkuntza guztien aniztasuna, berdintasuna eta ondare-balorea azpimarratuz, besteak beste;
- 5) Europako hainbat lekutan bezala Euskal Herrian ere, egoera berria sortzen ari da etorkinek dakartzaten hizkuntzekin. Hori guztia aztertu behar da, hezkuntzaren eta gainerako eremuetan ere;
- 6) Gaur egun etengabe garatzen ari diren teknologia elektronikoko berriek eragindako aldaketek hezkuntza-sisteman eragina dute, baina baita hezkuntzatik kanpo ere. Hizkuntzen bitartez egiten diren harremanak aldatu dira, eta kontuan izan behar da hori garrantzizkoa bada hizkuntza handientzat, are garrantzizkoagoa dela euskara bezalako gutxiengoaren hizkuntza batentzat;
- 7) Hizkuntza ezberdinak erabiltzerakoan, hezkuntza-sistemen baitan —eta hezkuntzatik kanpo ere— sortzen diren ezberdintasunak aztertu behar dira, besteak beste, irudikapenak, emozioak, eta gainerako prozesu psikosozialak aplikatuz;
- 8) Euskal Herriko hezkuntza, beste gutxiengoen hezkuntza-sistekin erkatzea —Katalana, Galesa, ...— sustatu beharko litzateke, zertan diren antzeko eta zertan ezberdin aztertzeko;

9) Aurreko guztia berriro euskara kasura ekarriz: bere garapen jasangarria ziurtatzeko azterketa eta ekintza gehiago egin behar dira, arrazoi ekologikoak, historikoak, ekonomikoak, kulturalak eta emoziozkoak daudelako, benetako eleaniztasunean bizi ahal izateko, hezkuntzan eta bestelako eremuetan ere.

AZKEN GOGOETAK

Oso interesgarria da liburuaren *HITZAURREA*, bai bertan esaten denarengatik, baita egilea beragatik ere. F. Genesee Québec-eko Montréal-eko McGill Unibertsitateko irakaslea da, elebitasunean eta eleaniztasunean aditua. Interesgarriak dira J. Cenozen liburu honi buruz egiten dituen aipamenak. Honako hauek dira aipatutako ideia batzuk:

1) Liburua “kasu-ikerketak” modura kontsidera daiteke -euskal kasu-ikerketak-, bertan aztertzen delako testuinguru berezi bateko hizkuntzaren jabeakuntzan izan den historia zoragarria. Horrelako kasu-ikerketak baliagarriak dira heuristikoki aberatsak izan daitezkeelako, eta zer gerta daitekeen irudikatzen dutelako. Gainera hurrengo ikerketetarako nolako hipotesiak erabili daitezkeen iradokitzen dute, eta ikuspegi anitzak erabiltzeko aukera zabaltzen dute.

2) Baina, liburu hau “kasu-ikerketak” berezia da herri baten kasua lantzen duelako, Euskal Herriko kasua. F. Genesee-eren ustez, hezkuntzan eleaniztasunaren mota ezberdinak garatu dituen kasua delako da interesgarria, elkarren artean lotuta dauden hiru bide hauek gurutzatzen baitira: 1) Euskal Herrian gertatutako bilakaera aztertzen da, hizkuntzarekiko, hizkuntzekiko, eta baita gizartearekiko ere; 2) Hezkuntza elebiduna eta eleaniztuna aztertzerakoan erabiltzen den teorizazio zabala eta nazioartekoa aplikatzen; 3) Erabiltzen den dimentsio anitzeko metodologia, beharrezkoa da hezkuntza eleaniztuna fenomeno konplexua gisa ulertzeko. Zentzu horretan, Genesee-ek ondo adierazten du zeintzuk diren landu beharreko gai nagusiak.

3) Gai hauen inguruko literaturan aipatu ohi diren zenbait hezkuntza eleaniztunen tipologiak bikoak eta askotan dikotomikoak izaten dira. Azpimarragarria iruditzen zaio F. Genesee-ri J. Cenozek dikotomia hori gainditu nahi izana, horretarako “*Continua of Multilingual Education*” *continuum* moduko proposamena eginez. Proposamen horretan jasotzen dira hainbat aldagai: 1) hezkuntzari lotuak —norbera edo subjektua, irakaskuntza-hizkuntza, irakasleak, eskolaren testuingurua—, 2) linguistikoak —hizkuntzen arteko tarte edo distantzia linguistikoa—, 3) soziolinguistikoak —makroak eta mikroak—. F. Genesee-erentzat ikuspegi hori errealistagoa da, konplexutasunaren artekotasuna hobeto lotzen du, dinamikoagoa da, inplikazioak —ikasle, irakasle eta programetan— gehiago

Euskal Herriko hezkuntza-sistemak erakusten du ez dela komeni hezkuntza elebidunaren eta eleaniztaren artean mugak jartzea.

Erabili beharreko ikuspegi konplexua eta malgua da. Eleaniztasuna ez da modu sinplean ulertu behar, elebakartasun anitzen batuketak balitz bezala.

Euskal ikasleek ez lukete espero behar ezagutzen eta erabiltzen dituzten hizkuntza guztietan gaitasun bera lortzea, baizik eta ezagutzen eta erabiltzen dituzten hizkuntza guzti horietan gaitasun-maila handia lortzea.

Hezkuntzan, gaitasun eleaniztunarekin batera, identitate anitzak ere ikertu behar dira.

Eleaniztasun egoerak interpretatzerakoan ikuspegi kritikoa erabili behar da. Adibidez, testuinguru historikoa, instituzionala, politikoa harremanetan jartzea oso komenigarria da boterearen arabera harremanak ulertzeko.

Ikuspegi diziplinartekoagoa erabiliz azterketak bideratzeak garrantzia du. Adibide bat izan daiteke ekologiaren ikuspegia erabiltzea, hizkuntza guztien aniztasuna, berdintasuna eta ondare-balorea azpimarratuz, besteak beste.

lotzen ditu eta malguagoa da, bai teorikoki eta baita metodologikoki ere.

4) Hezkuntzarekiko aldagaiak buruz, ideia interesgarriak aipatzen ditu Genesek euskal kasua bereziki aberatsa dela kontsideraturaz. Adibidez: 1) Euskal Herria beste herri baten barruan dagoelako, —Espainia Herrian—, posible da eskolan euskara eta espainiera, biak, ikasleen hizkuntza dominatzaile edo hizkuntza nagusia izatea; 2) Euskal Herria Europar Batasunean dagoenez, zenbait hizkuntza ezberdin etortzen ari zaizkio immigrazioarekin batera; ingelesa 3H bezala zabaltzen ari da hezkuntzaren bitartez, beharrezkoa delako gaur egungo mundu globalizatuan eta ‘*europenizatuan*’, lana, zientzia, teknologia eta horrelakoetan hobeto kokatzeko; eta eleaniztuntasuna sustatzen da hezkuntza-maila guztietan, baita unibertsitate-mailan ere.

5) Euskal kasu-ikerketan garrantzitsuak dira zenbait faktoreren eragina. Esate baterako, “adina” aldagaiak hiru hizkuntzak nola ikasten diren adierazterakoan bere lekua du, “hizkuntzen artekotasun linguistikoa” (*‘cross-linguistic effects’*) kontuan hartzen bada. Eragin horiek positiboak dira, adibidez, elebiduntasunak errazten duelako 3H ikastea, edozein dela ere hizkuntzen arteko distantziak, edo kognizioan, edo soziokulturalki, eta abar. Hori guztia, neurri handi batean, euskal ikerketetan ondo islatu dira metodologia kualitatiboak eta kuantitatiboak erabiliz.

6) Ikasleen faktoreak testuinguru soziolinguistikokoan kokatzen dira. Bertan azpimarratzen dira ikasleekin harreman zuzena duten mikro-mailako faktoreak. Adibidez, hizkuntza bakoitzean hiztun-dentsitatea, hizkuntza-estatusa, hizkuntza-erabilera eta ikuspena, hizkuntzen erabilera etxean eta norbanakoaren harreman-sarean, eta abar. Bere esanetan, hizkuntza-ikaskuntza gehiago lotzen da soziolinguistika ikuspegiarekin, psiko-hezitzaile ikuspegiarekin baino. Nolanahi ere, liburuak hezkuntza-arloko eragileentzat ez ezik oso baliagarria da hizkuntzalarientzat ere, hala nola soziolinguistentzat eta psikolinguistentzat ere.

Gogoeta horiez gain, nik neuk, beste batzuk ere erantsi nahi nituzke:

1) Liburuaren aberastasuna azpimarratu nahi nuke berriro —erabiltzen duen bibliografia zabala barne—, zuzenean irakurtzera bultzatu nahian.

2) Zenbait emaitza eztabaidagarri direla ikusiz, oraindik dagoen zeregina azpimarratzea komeni da, J. Cenozek berak aipatzen duen bezala. Horrenbestez, liburuak ikerketa garatzen jarraitzea gonbidatzen gaitu, geroz eta modu anitzagoan, konplexuagoan, berriagoan eta malguagoan.

3) Zenbait berrikuntza jaso ondoren, galdera berriak irekitzeko beharra ere sortu zaigu, kapitulu horietan guztietan. Horietako batzuk J. Cenozek berak aipatu ditu, esate baterako, ekologiaren ikuspegia erabiltzearen premia. Horiekin batera, alabaina, beste batzuk gure baitan sortu dira. Adibidez:

- a) Gaur egungo egoera emergente eta trantsiziozko honetan — globalizazioa, post-postmodernismoa, indibidualizazioa, pribatizazioa, aldakortasuna eta dinamikotasuna, sareen ahultasuna, norberaren aukerei indarra ematea, ...—, nola ziurtatu bertako gutxiengoaren hizkuntzaren normalizazioa eta garapen jasagarria eleaniztasunarekin batera?, gure kasuan euskararena? Nire iritziz liburuan irtenbidea errazegia bezala adierazten da;
- b) Norbanakoaren ezaugarriak geroz eta garrantzi handiagoa izango dutenez, ikuspegi psikosozialari geroz eta garrantzi handiagoa eman beharko zaio —hautemateak, egozpenak, identitateak, irudikapenak, motibazioak, jarrerak, helburuak, emozioak, eta abar—, nahiz eta liburuan prozesu horiekiko emaitzak zalantza-koak gertatu diren artean dauden. Nola bideratu hori guztia?

4) Liburuan aurkitzen den *'definizioak eta terminologia'* zehazteko beharra azpimarragarria da. Nik gai hori eztabaidagarri jarriko nuke, gehiago aztertzea beharrezkoa ikusten baitut. Esate baterako *'majority language'* eta *'dominant language'* kontzeptu biak ez dira gauza bera, liburuan esaten den bezala; ez dute berdin funtzionatzen, eta bi terminoak, edo teknizismoak, ondo bereizi beharko lirateke. Beste adibidea *'multilingualism'*, *'plurilingualism'*, terminoekin gertatzen da; bi terminoek birdefinitzea merezi du etengabe erabiltzen diren teknizismoak direlako. Aurrekoarekin lotuz, nola bereizi ingelesez euskaraz *'elebitasuna'* eta *'elebiduntasuna'* direnak?, edo *'eleaniztasuna'* eta *'eleaniztuntasuna'* direnak? Edo komeni al da *'bilinguality'* (pertsona mailan) eta *'bilingualism'* (gizarte-mailan) bereiztea?, eta antzera *'multilinguality'* eta *'multilingualism'* bereiztea? Eta abar.

Bukatzeko, eskerrak eman behar dizkiot J. Cenoz bere liburu aberats honi buruzko artikulua hau prestatzeko aukera eman didalako, eta liburu bera irakurtzen asko disfrutatu dudalako.■

OHARRAK

1. Cenoz, J. (2009). *Towards Multilingual Education. Basque Education Research from an International Perspective*. Bristol: Multilingual Matters.
2. Cenoz, J. & Lasagabaster, D. (Argitaratzaile Gonbidatuak) (2005). *Euskararen jabeakuntza eskolan*. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 56, 2005.
- Cenoz, J. & Lasagabaster, D. (ed.) (2006). *Hizkuntza ikasten eta erabiltzen*. Bilbo: UPV/EHU.

Ikasleen faktoreak testuinguru soziolinguistikoan kokatzen dira. Bertan azpimarratzen dira ikasleekin harreman zuzena duten mikro-mailako faktoreak. Adibidez, hizkuntza bakoitzean hiztundentsitatea, hizkuntza-estatusa, hizkuntza-erabilera eta ikuspena, hizkuntzen erabilera etxean eta norbanakoaren harreman-sarean, eta abar. Bere esanetan, hizkuntza-ikaskuntza gehiago lotzen da soziolinguistika ikuspegiarekin, psikohezitzaile ikuspegiarekin baino.